

1914

Bi erroberaren gainean

Plano eta mapa zaleak garela ezin dugu ukatu. Oraingoan bitxien artean bitxiena dakar-kizuegu, eskualdeko mapa bat baina hasi berri ziren moto-lasterketetarako prestatua. 1914koa da, baina 1913an egin zen eta 1915ean egingo zen lasterketak ere erakusten dizkigu. 1913koak, Lequeitio-Arbacegui-Marquina-Lequeitio, 46 km izan zuen; 1914koak, Lequeitio-Arbacegui-Marquina-Oleta-Arbacegui-Marquina-Lequeitio, 86 km eta 1915ekoa oraindik erabaki barik zegoen.

Bost motozale agertzen diren argazki hori 1913koa da parte hartzaileen artean Claudio Ibañez Aldekoa ezagutu dugulako. Zazpi partehartzaileetako bat izan zen. Irabazlea Vicente Amias izan zen, Ramon Solano, Ramon Anduiza eta Jacinto Garamendi haren atzetik heldu ziren. Markinara joan, han gelditu -ez dakit kafetxoa hartzeko edo zertarako- eta bueltatu, guztira 46 km. Karrera zabaltzen zuen kotxea Pedro Oruerena zen, zarratzen zuena Pascual Algortarena. Espektakulu harrigarria izango zela ez daukagu dudarik! Beste argazkia 1914ko lasterketakoa da Ceniga medikuak ateratakoa. Urte honetan "profesionalek" hartu zuten parte eta Copa de Lequeitio deitu zioten. 86 km, kategoria ezberdinak, parte-hartzaile gehiago, sariak... Kotxeak ere aldatu egin zituzten, Ramon Solanorenak zabaldu zuen lasterketa, zarratu Carlos anaiarenak.



Lekeitioko Udal Artxiboa (LUA)



1913ko moto-lasterketako partaideak Lekeitiotik irtetzear. LUA



Moto-lasterketaren mapa, 1914
LUA



1914ko moto-lasterketako motozale bat Oleta parean. Ceniga familiaren artxiboa